



Erreka,
erreka bila


drogeten iturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 160. alea 2008ko iraila

Argazkia: J. A. ...

Egun horretan tia Angelak deitxu eban, denda ostetik ura hasitxa euala sartzen... Errekara zuzen zoian tapa bat euan; errekiak betetzen hasi zanian, tapiak altxatze-ra eitzen eban eta ura sartzen hasi zan. Lehelengo, geratzeko asmuakin, trapu batzuk sartu genduzan; pixua bihar zebala eta butano bonbona bat hurreratu, jarri neu gaiñian eta hantxe, urari eusten. Saltoka eitzen neban; urak, emoten zitxuan kolpiekin, tapiak jo eta neu mobitzen niñuan. Holakuetan gauzak arin juaten dira, ez dakazu aukerarik pentsatzeko; erabaki bat hartu eta horretan zagoz. Esturasunakin ez jatan bururatu arriskuan neuanik. Batera-batera zarata gogor bat entzun zan eta baretzen hasi zan. Beheragoko kalia apurtu zan eta enbarazua eitzen burdiñezko konpresore bat be topau eben, goragoko taillarren batetik tatarrasian ekarritxakua.

Urak bere lekutik kanpo ibilli ostian, bere lekura juateko bidia topau bihar izaten dau eta Ermuan errekiak bistan dauan leku bakarra Udalteixe ostia da. Errekiak barrero errekiak topatzen dau. Ermuan sekziño gitxi daka, ura juateko lekua urrixa da eta ez euan prestauta horrenbeste ur hain denpora gitxian hartzeko. Nire lanagaitzik, erreka barrura sartu bihar izan naz sari eta oin-txe be orduko puntu kriti-



kuak, arazodun izaten jarraitzen dabe. Saneamendu obrak ein bihar ei dabez laster eta asmua ei dago errekiaren sekziñua hobetuz, bere ur kapazidadia haunditze-ko. Ura, sua baiño kaltegarri-xaua eta indartsuaua izan leike!”.

Fellsa Zenaruzabetia, baserritarra.

“Akordatzen naz eurixa eta eurixa eitzen ebala eta Bilbon eta txartuau ibilli ziralara hamen baiño. Ordurako “Motxuneko” gure basarrixa be kenduta genduan eta hainbeste arduratu bez. Aurrerakuetan hamen haundi-xaua eiñ eban. Oin dala 55 urte, itzelak izan ziran! Ganauak be samaraiño uetan euazen, orruz eta itxo biharrian. Erropak be lehelengo pisutik gora altxatzen, gan-

barara. Buf, gogorra zan ha! Errekaldeko errekiak paretik pasatzen jakun eta gaur ‘Kus-kus’ tabernia dauan lekuan Mallabitxik zetorrenakin batzen zan. Zenbat ur! Hillabeteko umia nekan eta ene, zelako esturasuna, bildurtuta! Ezin zeinkian urten etxetik, pentsau bez! Eurixa gero, ein eta ein! Elixia eta be, ur baten euazen, dana zan ura! Palazioko atiak zabaldu zitxuezenian urten eban ur horrek bestekaldera. Errekak bistan euazen eta ujalak eta ikusten genduzan. Ene, ni oin be eurixa eitzen dabenian juan eitzen naz errekiak ujalekin zelan datorren gehitxuta ikustera! ‘Politxo ein dok!’ edo ‘Gauza haundirik etxok ein!’”.

Ignacio Urreta, argazkilarra.

“Haundixak ezagutu doguz batzuk. 43ian be... Ni ikusitxa nago entierria be suspendidu biharra, hurrengo egunera pasauta; urak ekin igoten eta Elixia eta kale guztiak hartu-

ta! Elixan, erditxik atzera sillac euazen, sepulturak esaten jakuezenak euzen, famelixa baktxana eta harek silla danak urak eruan zitxuan. ‘Motxu’neko basarritxik txarrixak etaraten ekin zotsien eta orduan urtian ura goi xamarraiño i go eban. Erreparatzen badotsazu behinobehin Elixako ate bixetan, bai beheko barrenian eta zein elizpian, bixetan behekaldean maillia dao bai igotzeko, ba ertzian ebagitxa dago. Harrixak kanal bat etarata daka, desagüe modura Elixako urak urten deixian. Beteta barrua eta ur guztia etaratzeko baldaka ein bihar zenduan; harek ebagi ezkerro, txirrrrrr! dana kanpora. Oin 25 urte, kale osua, Kantabrianekeo trabesia dana jaso ein eban, porlana eta kalia eusteko burdiñak be bistan. Goittik beherako presiñua, juan ezin ur guztia... eta jota, gora! Dza! Iñora juan ezin danian, indarra urak, eh!”

Estibalitz González

“Esturasunakin, konturatu ez arriskuan neuanik”

**TALAPARTA
ABERNA**

**ESTEBURVETAN
BOKATAK, PINTXOAK
ETA AFARIAK**

**OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA**

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Gaienkale, 12 - beheo

**DO
MOUTH**